



KAPADOZIA

harrizko herria



MUNDUKO PAISAIA IKUSGARRIENETAKO BAT TURKIAN DAGO, Kapadoziako lurralde historikoan. Sakaneak, arroilek eta formazio bitxiak kutsu magikoa eta paregabea eman diote Anatoliako erdiguneko eremu honi.

Orain dela 10 milioi urte, sumendien labek eta hautsek tufa izeneko mineralaz estali zuten lautada.


Mineral horrek ez ditu ondo jasaten euriaren, temperatura-aldaketen eta airearen erasoak; horregatik, denborak aurrera egin ahala, naturak eremua moldatu du, eta ibar harrigarriak, kono-formako zutabe arraroak eta deskribatu ezin den paisaia osatu ditu.

Kapadoziako egitura endemiko harrigarrietarikoak “sorgin-tximiniak” dira. Monolito bolkaniko horiek tobaz osatuta daude beheko partean, eta basaltoz eta andesitaz goialdean.

Altuenek eta ikusgarrienek 40 metroko altuera hartzen dute. Baina, babesten dituen txapela galtzen dutenean, desegiten hasten dira.

Gizakiak ere aprobetxatu ditu lurralde honetako haitzulo eta koba naturalak. Kristauek, hititek eta bizantziarrek monasterio, kapera eta eliza ugari antolatu zituzten arroketan. Ezagunetako bat “Eliza Iluna” da. Argi-gabeziari esker, X. eta XI. mendeetako freskoak beren horretan mantentzen dira.





Baina Kapadozian bizi izan ziren zibilizazioek haitzulo naturalak aprobeztatzea baino askoz gehiago egin zuten; izan ere, beren eskuekin zulatu zuten arroka espazio berriak sortzeko. Tufaz osatutako arrokaen biguntasunari eta moldagarritasunari esker egin ahal izan zuten hori. Horrela, inbaditzaile arabiarretatik ihesi Kapadoziara iritsi ziren lehenengo kristauak 37 bat hiri eraiki zituzten VII. eta VIII. mendeetan. Horietako batzuek 10.000 pertsona hartzeko ahalmena zuten, eta labirinto oso handien bidez komunikatuta zeuden. ●

